

zakilixut

© Olariagak



«Tabernako barrak aldatu nau»

■ **Gure amonak dio bazela garaia ETB1en zu bezalako gizon guaporen bat azaltzeko.** Harritzen nau. Jende guapoa badago: *Ikusgela* saiokoa, Euzkitzek ere izugarritzko enkantua dauka...

■ **Dena dela, amonaren us-tez, urrezko eskumuturreko, lepoko gehiegi daramazu.** Behin baino gehiagotan aipatu didate. Orain, *Basetxea* grabatzeko, dena kenduta daukat. Zuen amonari gustatuko zaio.

■ **Goiko agindua, ala?** *Basetxea* herri giroko saioa da, eta irudia egokitzen saiatzen naiz.

■ **Altua, ile horia... Estatubatuar peto-petoa.** Bai, baina aita Alonsotegikoa eta ama Bortzenekoa, Lesaka-koak. Askotan esaten didate, baina han jaio edo hemen jaio, berbera izango nintzen.

■ **Txikitan futbolari izan nahi zenuen.** Real Unionen eta Turinen aritu nintzen, Hirugarren Mailan, baina nik pilota dut gustuko kirola. Hemezortzi urterekin ostalaritzan hasi, eskuak beratu eta utzi nuen. Baina palan aritzen naiz, eta futboleant, eta...

■ **Basetxea saiorako ezin aproposagoa.**

Beti esaten dut aurkezlea naizela, baina lehiakide gisara ere parte hartuko nukeela.

■ **Nolanahi ere, ez zintuen kirolak aldatu, baizik eta tabernako barrak.**

Oso lotsatia nintzen, eta jendea ezagutzen eta lotsa gainditzeko ikasi nuen. Gezurra dirudi, baina 50 zentimetroko barrak asko irakasten du.

■ **Topiko samarra da aurkezleek esatea lotsatiak direla.**

Ni memento honetan ez naiz lotsatia. Baina ezagutzen ditut pertsona batzuk normalak direnak eta gero argi gorria pizten dela guztiz aldatzen direnak.

■ **Nola heldu zinen zu argi gorriaren aurrean jartzera?**

Familiak bultzatuta. Intsumisio eta objektzioa kontuan ibilia naiz, hitzaldiak ematen, eta esan zidaten telebista munduan saiatzeko. *Casting*-etara aurkeztu hasi nintzen. Canal 4n hartu ninduten, gero ETBn...

■ **Eta aurrean EITBko promozio aldizkariko lehen orrian ageri zara.**

Estitxu Fernandez eta Euzkitze-ekin batera. Bi lesakar eta Euz-

KATE MOTZEAN

Juan Kruz Lakasta

JULIAN IANTZI

TELEBISTA AURKEZLEA

Woodland (Kalifornia, AEB), 1967. Ameriketan jaiotako lesakarra. ETBren denboraldi berriko aurpegiarik freskoenetakoa. Altua, guapoa, jatorra, Euskal Herriko amek nahi duten suhia.



«Ospea gure pagotxaren truke ordaintzen dugun zerga da»

kitze. Harritu egiten naiz hori ikusita. Hala tokatu da, eta gustura.

■ **Zer moduz daramazu ospearen zama?**

Gustura. Gran Wayomini entzu-

na diot ospea dela telebistaren pagotxatik bizi ahal izatearen truke ordaindu behar den zerga iraultzailea. Ados nago. Gainera, jendea oso jatorra izaten da.

■ **Batzuek diote Basetxea be-**

zalako saio bat onartezina dela ETB bezalako telebista batean.

Ez dakit zergatik. Hau ez da *Gran Hermano*. Bizikidetzat lan-du behar da, baina hau batez ere biziraunpeneko saioa da. Bertzalde, *Gran Hermano* saioak Euskal Herrian lortzen zituen entzule kopururik handienak.

■ **Bestetziek diote motz geratu zaretela, ez dela bizikidetzat behar bezala ikusten...**

Bigarren *Basetxea*-n hori aldatu da. Ikusiko duzue zer polita. Ez dut gehiago erranen.

■ **Begia gose saioan polemikarik ez. Erreportaia formatu horretan gustura?**

Oso gustura. Lan taldea ikaragarri majoa da. Gero, kalean dauden gaiak barrendik ezagutzeko aukera izan nuen. Hori oso aberasgarria da.

■ **Ikusle moduan, zer duzu nahiago, *Gran Hermano* ala *National Geographic*?**

Mementoaren arabera da hori. Telebista apenas ikusten dudana. Beti nabil etxetik kanpora. *Gaur Egun* eta *Sorginen Laratza* ikusten ditut, ozta-ozta.

■ **Nolanahi ere, zure etxean zure saioak asko ikusten direla esan didate.**

Grabatzea gustatzen zait, akatsak ikusteko. Faborez akatsei erreparatzeko eskatzen diet emazteari, amari, lagunei. Beraz, zure amonari galdetu ea zertan ikusten dituen akatsak.

